

Ingeniaritzarako Oinarrizko Gainazalak



00 Irudia. Bilboko Ingeniaritza Eskolako II.eraikineko eskilara zentralak. Egileen argazkia, 2018.

1. Gainazalen oinarrizko kontzeptuen inguruko testa

Argibideak

Jarraian aurkezturiko galderaei, erantzun anitzeko aukeraketa eskeintzen zaio, emaitza zuzena bakarra izanik.

Erantzunak, dokumentu honen bukaeran aurkituko dituzue.

1. GAINAZALEN OINARRIZKO KONTZEPTUEN TESTA

Ondorengo baieztapenetatik, adierazi zein esaldi den zuzena edo egokia:

1. Gainazal eta gorputzaren kontzeptuen inguruan:

- a. Gainazala, sortzailez osaturiko gorputza da, gorputza berriz, meridiano eta paraleloz ere osaturik egon daiteke.
- b. Gainazal eta gorputza kontzeptu baliokideak dira, gorputzak behe oinarria duelaren ezberdintasun bakarrarekin.
- c. Gainazalak ez du lodiera jakinik eta mugagabea izan daiteke, gorputzak berriz hedapen mugatua duen bitartean eta beraz, bolumena.
- d. Gorputza, posizio ezberdinetan dauden hainbat gainazalez osatua dator.

2. Gainazal erregelatuaren eraketaren inguruan:

- a. Erpin batean oinarrituz bira egiten duten lerroz osaturik daude.
- b. Zuzenek eratzen dituzte, sortzaile izenekoak, mugimendu lege baten arabera espazioan zehar mugituko direnak gainazala zehaztuz.
- c. Gainazal ez kurboak dira.
- d. Zuzen batek eratuak dira, sortzaile izenekoa, mugimendu lege baten arabera espazioan zehar mugitzean, gainazala zehaztuko duena.

3. Gainazal erradiatuaren inguruan:

- a. Esfera gainazal erradiatu bat da eta beraz, bere erradioa akotatu daiteke.
- b. Esfera gainazal erradiatu bat da, naiz eta bere diametroa akotatzen dugun.
- c. Esfera ez da gainazal erradiatua, zentrutik igarotzen diren sortzailerik ez duelako.
- d. Esfera ez da gainazal erradiatua, bere sortzailea puntu finko batetik igarotzen ez delako.

4. Gainazal erregelatuaren inguruan:

- a. Esfera gainazal erregelatua da eta beraz, akotatu dezakegu.
- b. Esfera ez da gainazal erregelatua, kota linealik ez duelako.
- c. Esfera ez da gainazal erregelatua, bere sortzailea lerro zuzen bat ez delako.
- d. Esfera ez da gainazal erregelatua, bere zuzentzailea lerro zuzen bat ez delako.

5. Gainazaletan, ebaketa planoen bidez oinarrizko gainazala mugatzen edo zehazten denean, honela deritzogu:

- a. Sekzioa.
- b. Enborra.
- c. Bolumena.
- d. Elkargune gainazala.

6. Esfera:

- a. Erreboluzio bidez lortzen den kurbadura sinplezko gainazal bat da.
- b. Erreboluzio bidez lortzen den kurbadura bikoitzeko gainazala da.
- c. Bi ardatzen inguruan erreboluzioz lortzen den kurbadura bikoitzeko gainazala da.
- d. Erreboluzio bidez lortzen den kurbadura hirukoitzeko gainazala da.

7. Prisma zuzen irregularra:

- a. Alturak oinarriarekin angelu bat osatzen du, luzera ezberdineko sortzaileak eratuz.
- b. Ardatzak edozein angelu osatzen du eta oinarriak luzera ezberdineko ertzak ditu.
- c. Ardatza eta altuera ez dira paraleloak.
- d. Ardatza, oinarriarekiko elkartzut da eta azken honek luzera ezberdineko ertzak izango ditu.

8. Ez-erreboluziozko zilindro zeharria:

- a. Altuerak ez du ardatzarekiko biratzen eta oinarriarekin angelu bat osatzen du.
- b. Sortzaileak ardatzarekiko ekidistanteki biratzean sorturikoa, biraketa, 360° ren azpitik izanik.
- c. Bere simetria ardatzarekiko biraketa, norabiderik gabekoa edo erratikoa da.
- d. Sortzaileak ez du ardatzarekiko biratzen eta azken honek oinarriarekiko angelu bat eratzen du.

9. Proiekzio plano horizontalean bere oinarri zirkularra kokaturik duen zilindro zeharria:

- a. Erreboluziozko zilindro bat da.
- b. Ez da erreboluziozko zilindro bat.
- c. Erreboluziozkoa edo ez erreboluziozkoa izango da, oinarriarekiko ardatzak duen angeluaren baitan.
- d. Oinarri zirkularrekoa izanik, beti izango da erreboluziozkoa.

10. Proiekzio plano bertikalean bere oinarri zirkularra ezarria duen kono zuzen batek:

- a. Ardatza ez da oinarriaren zentrotik igarotzen.
- b. Altuera, oinarriaren zentrutik igarotzen da, baina bakarrik proiekzio plano bertikaletik.
- c. Ez da erreboluziozkoa.
- d. Proiekzio horizontalean, bere sortaileak oinarriarekiko ukitzaile izango dira.

Gainazalen oinarrizko kontzeptuen inguruko testaren emaitzak

1c, 2b, 3d, 4c, 5b, 6b, 7d, 8d, 9b, 10d



OCW
OpenCourseWare

